KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA, ERREZILGO PILOTALEKUAN HARMAILAK ERAIKITZEKO LANAK KONTRATATZEKO

1.- XEDEA

1. Agiri honen xedea ERREZILGO PILOTALEKUAN HARMAILAK ERAIKITZEKO lanak prozedura ireki sinplifikatuaren bidez esleitzeko kontratua arautuko duten baldintza teknikoak zehaztea da, Ganzarain arkitekturak idatzitako eta Errezilgo Udalak 2023ko apirilaren 13an onartutako obra-proiektuarekin adostasunean.

2. Proiektua (proiektuko agiriek kontratu-izaera edukiko dute), administrazio-klausula partikularren agiria, agiri teknikoa eta esleipendunak bere gain hartutako konpromisoak betez gauzatuko dira lanak.

2. KONTRATU-XEDEAREN DESKRIBAPENA ETA EDUKIA

Hona hemen kontratu-xedearen deskribapena:

Egikaritze-proiektuak Errezilgo pilotalekuan harmailak eraikitzeko lanak deskribatzea du xede. Eskaerari erantzuteko, Errezilgo Udalak pilotalekuaren barruan ikusleentzako harmailak eraikiko ditu, eta jokoa erosotasunez ikusteko sarrera independentea erantsiko die.

Pilotalekuaren fatxadari harmailak atxikiko dizkio terrazarekin konektatzen duen pasabidearen bitartez, eta harmailak komun publikoetarantz zabalduko dira. Pilotalekuaren fatxadan gutxi gorabehera 24 m luze eta 1,85 m zabal den harmaila laukizuzena ezartzea aurreikusi da, itxitura-fatxadari atxikita, eta eskailera batek komunetako terrazarekin konektatuko du. Harmailen oinplanoak euste-zutoinen kontra hegala du jarrita. Harmailen aurrealdea pilotalekuko kotaren 2,75 m-ra egongo da. Harmaila batek egitura metalikoa eta xafla kolaboratzailea izango ditu, eta 80 ikusle sartuko dira bertan, 40 eserita eta 40 zutik. Harmaila honetan barra bertikalekin itxiko da eskudela, pilotalekua osorik ikusi ahal izateko. Pilotalekuko fatxada mantendu egingo da. Beheko harmailaren kota pilotalekuko kotatik 2,75 m-ra dago, joko-eremuaren ikuspegi ona emateko. Hegaleko lauzaren gainean barra bertikalez osatutako eskudela jarriko da. Aurrealdeko muturrean egongo dira sarbideak. Harmailen azpian biltegia aurreikusita dago. Harmailen egiturak zeharkako habe metalikoak eta forjatu kolaboratzailea eusteko luzekako petral metalikoak ditu. Komunetako terraza eta harmailak hormigoi armatuzko eskaileren bidez konektatuko dira.

3.- AURREKONTUA

Kontratuaren prezioa-lizitazioaren aurrekontua 85.971,11 eurokoa da (BEZ barne).

Eta kontratari dagokion kopurua: 71.050,50 euro (BEZ kanpo), proiektuaren arabera, lizitazioaren azken kopurua edozein dela ere.

4.- EGIKARITZE-EPEA

1. Kontratatuko diren lanak lau hileko epean gauzatu beharko dira, Zuinketa Egiaztatzeko Akta sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

2. Baldin eta epemugan lanak amaituta ez badaude, kontratista berandutu egin dela iritziko zaio. Udalak ez dio aurre-oharpenik egingo.

5. BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Administrazio-klausula partikularren agirian jasota geratuko dira kontratua esleitzeko erabiliko diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena.

6.- HORNITZAILEEN ETA LANGILEEN BERMEA

Udalak edozein unetan eska diezaioke kontratistari kobrantzak eta kitapenak egunean dituela ziurtatzeko, langileen eta hornitzaileen nominei eta fakturei dagokionez.

Lehen aipatutako ordainketak egunean ez badaude, Udalak obrako kontratua deuseztatzea erabaki dezake, beste gabe, eta egindako obraren partidan ordaindu gabeko zenbatekoa gorde kontratistak ordaintzeko dituen nominak eta fakturak kitatu arte.

7.- ASEGURUAK

Kontratista bere langileen segurtasunaz arduratuko da, eta erreklamazioen aurrean erantzungo du, baita Udalaren kontrakoak direnean ere, baldin eta lanak gauzatzerakoan makinek edota kontratistaren eta haren langileen ekintzek eta omisioek Udalari, obran parte hartu duten beste erakundeei edo hirugarrenei kalte pertsonalak eta/edo materialak eragin badizkie.

Halaber, eta baldintza beretan, eraikuntza-lanak egingo diren zonako instalazioek eta Udalaren edo hirugarrenen jabetzako ondareek jasan ditzaketen kalteen erantzule izango da.

Kontratistak dagozkion aseguruak kontratatu eta ordainketak egunean mantenduko ditu obrak hartu arte, eraikuntza-arriskuaren asegurua (kontratuaren balioaren adinako zenbatekoraino) eta hirugarrenei eragindako kalte-galerengatiko erantzukizun zibileko asegurua bereziki. Helburu horretarako, kontratistak kontratatutako aseguru-polizen fotokopia konpultsatuak aurkeztu beharko ditu, kontratua sinatu osteko hamar eguneko epean. Udalak edo hark izendatutako pertsonak kontratistak sinatutako eraikuntza-arriskuaren aseguruaren onuradun gisa agertu beharko du, adierazitako mugaraino.

8.- BETEBEHAR SOZIALAK ETA SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Kontratistaren eta, hala badagokio, azpikontratisten gainerako lan- eta gizarte-betebeharrei kalterik egin gabe, dagokion mutualitatean haien zerbitzura dituzten langileen lan-istripuak eta lanbide-gaixotasunak estali beharko dituzte.

Kontratistak, eta, hala badagokio, azpikontratistek, lege hauek bete behar dituzte: azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan-arriskuen Prebentzioari buruzkoa; abenduaren 12ko 54/2003 Legea, lan-arriskuen prebentzioaren arau-esparrua eta horiek garatzen dituzten erregelamendu-arauak berritzen dituena; hitzarmen kolektiboek arlo horretan ezarritako xedapenak; 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza-obretarako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituena, eta segurtasunaren eta osasunaren arloko gainerako araudia.

Kontratua formalizatzen denetik 15 egun naturaleko epean, kontratistak lantokiaren irekiera izapidetuko du, eta Segurtasun eta Osasun Plana idatzi, proiektuaren Segurtasuneko eta Osasuneko Azterlana oinarritzat hartuz, Udalak izendatutako segurtasuneko eta osasuneko teknikari koordinatzaileak, zehaztapenak betetzen direla egiaztatuko duenak, ontzat emateko. Horiek betetzen ez badira, kontratuaren baldintzak hausten diren kasuetarako agiri honetan aurreikusitako ondorioak aplikatuko dira.

31/95 Legean, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoan, jasotakoaren arabera, pertsona naturalek edo juridikoek baldintza hauek egiaztatu behar dituzte:

a) Lan Arriskuen Hasierako Ebaluazioa, Lan Arriskuen Prebentzioaren Legeari buruzko 16. artikulua.

b) Prebentziozko jarduera planifikatzea, Prebentzio Zerbitzuen Araudiaren 39/97 Errege Dekretuaren 8 eta 9 artikuluak.

c) Langileen Osasunaren zaintza periodikoa, LAPLren 22. artikulua.

d) Langileei lanpostuetako arriskuei buruzko informazioa ematea, LAPLren 18. artikulua eta lan-arriskuen prebentzioaren arloko langileen prestakuntzari buruzko 19. artikulua.

Obligazioen betearazpena honela egiaztatuko da:

- ❖ Prebentziozko jarduera hitzartuta badago, prebentzio-zerbitzuaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.

- ❖ Prebentzioa nork bere gain hartuz gero, egiaztatu beharreko dokumentazio guztia erantsiko da.

9.- AZPIKONTRATAZIOA

SPKLaren 215. artikuluan jasotakoa betez, lanen esleipendunak hirugarrenekin adostu dezake obra-unitate edo -partida zehatz batzuk haiek egin ditzatela, baina azpikontratazio horrek ez du inolaz ere kontratista nagusiaren konpetentzia murriztuko. Kontratista nagusiari lotutako enpresekin egindako azpikontratazioak ez dira azpikontrataziotzat joko, eta, edonola ere, baldintza hauek bete beharko dira:

1. Kontratistak idatziz jakinaraziko dio Udalari hirugarren bat azpikontratatuko duela, hark egingo dituen obraren kapituluak adierazita utziz. Azpikontratazioa amaitzean, berriz, dagokion kitapen ekonomikoa egin eta azpikontratistak dirua kobratu duela ohartaraziko dio.

2. Azpikontratistek kontratista nagusiaren aurrean baino ez dute erantzun beharko eta, edonola ere, Udalaren aurrean kontratista nagusiak bere gain hartuko du kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa, kontratuaren oinarria den proiektu teknikoaren arabera betiere.

3. Segurtasuneko eta osasuneko koordinatzaileak Azpikontratazio Liburua izango du eskuragai, urriaren 18ko 32/2006 Legearen 8.1 artikuluak, Eraikuntza-sektoreko azpikontratazioa arautzen duenak, ezarritakoa betez.

Edonola ere, klausula honetan azpikontratazioari buruz aurreikusten ez denerako SPKLaren 215. artikulua eta hurrengoak bete beharko dira.

10.- GASTUAK ETA ZERGAK

Kontratistak, formalizatuko den kontratuaren arabera, Estatuak, autonomia-erkidegoak edo toki-erakundeek ezarritako gastuak, zergak, tasak, arielak, eskubideak eta edozein motako tributuak ordaindu beharko ditu, eta lanak amaitu bitartean sortutako egikaritze-gastuak ere bai; salbuetsita daude proiektu

eta azterlan teknikoen idazketaren eta zuzendaritza fakultatiboaren ordainsariak.

Halaber, kontratistak zuzendaritza fakultatiboarekin eta jabetzarekin koordinazioan obrak egiteko baimenak eta eginbideak izapidetuko ditu.

11.- LANEN PROGRAMA ETA ZUINKETA

Zuinketa amaituta, esleipendunak lanen programa aurkeztu beharko du, kontratazio-organoak onartzeko. Programa hori zortzi egun naturaleko epean aurkeztu beharko da gehienez, kontratua formalizatu denetik, eta aurkeztutako proposamenak ez ditu kontratuaren baldintzak aldatuko. Kontratazio-organoak ontzat ematen badu, kontratuari atxikiko zaio.

12.- LANAK GAUZATZEA

Kontratistaren edo haren mendeko pertsonen ekintzek edo omisioek kontratuaren martxa ona eten edo arriskuan jar badezakete, kontratazio-organoak neurri zehatzak hartzeko eska diezaieke hitzartutako lanak lehengoratu edo behar bezala betetzen direla ziurtatzeko.

SPKLTBren 231.2 artikuluan jasotakoa betez, halabeharrezko kasuetan APKLEOren 146. artikuluan zehaztutako prozedura jarraituko da.

Kontratuaren betearazpenean sortutako intzidentziak kontraesaneko espediente baten bidez ebatziko dira, APKLEOren 97. artikuluan jasotakoa betez.

13.- OBRA-ZUZENDARITZA ETA -IKUSKAPENA

Udalak izendatuko ditu, Obren Zuzendaritza Fakultatiboko kideen artetik, kontratua betetzeko arduradunak.

Arkitektoa, arkitekto teknikoa eta segurtasun- eta osasun-koordinatzailea arduratuko dira Obren Zuzendaritza Fakultatiboaz.

Kontratuaren gauzatze eta jarraipenaz arduratuko den unitateaz gain, SPKLaren 62. artikuluan jasotakoa betez, kontratazio-organoek lanak gainbegiratzeko eta erabakiak hartu eta beharrezko jarraibideak emateko kontratu-arduraduna izendatuko dute, lanak behar bezala gauzatzen ari direla ziurtatzeko. Helburu horretarako, zuzendari fakultatiboak kontratu-arduradunaren ahalmenak erabiliko ditu.

Kontratistak beharrezko errespetua gorde edo gordearaziko dio zuzendari fakultatiboari, zeinak sarbide librea izango duen laneko puntu eta obrako materialen biltegietara, aldez aurretik ikuskapena egiteko.
Nahiz eta zuzendaritza fakultatiboak ziurtagiriak onartzerakoan ezkutuko akatsik ez ikusi, kontratista ez da erantzukizunetatik libre geratuko.

Kontratistak zuzendaritza fakultatiboak emandako jarraibideak bete beharko ditu, horren ondorioz eduki ditzakeen erantzukizunak alde batera utzita. Udalak eskumena du udal-teknikarien eta gainerako langileen bitartez obrak edozein unetan ikuskatzeko.

Zuzendariak premiazkoak diren lanak egiteko agindu dezake, hur-hurreko arriskuen eta ustekabeko oztopoen aurrean. Kontratistak lan horiek gauzatu beharko ditu obra-zuzendaritzak administrazio-izapidea beranduago egiten badu ere.

Lanek iraun bitartean zuzendaritzak zuinketa partzialak egin ditzake, egoki baderitzo. Zuinketa-akta bakoitzak launa ale izango ditu, eta dagozkion planoak erantsiko zaizkio. Kontratistak ordainduko ditu zuinketei lotutako materialaren eta langileen gastuak.

14.- AGINDUEN LIBURUA

Kontratistak “Aginduen Liburua” egin eta obran eduki beharko du une oro. Aldez aurretik, Zuzendaritza Fakultatiboak bideratuko du, eta beti edukiko du eskura. Zuinketa-akta sinatzen denean irekiko da, eta obrak behin betiko jasotzen direnean itxi.

Zuzendaritzak liburuan idatziko ditu egoki deritzon aginduak, jarraibideak eta komunikazioak, eta sinadurarekin baimendu. Kontratistak haien “jakinaren gainean” dagoela idatziko du. Halaber, Zuzendaritza Fakultatiboak Aginduen Liburuan kontratistaren jarraibideak, iradokizunak eta erreklamazioak jasota utziko ditu aparteko dokumentu batean. Dokumentu horiek eta Udalak emandako erantzunak Aginduen Liburuari erantsiko zaizkio.

15.- OBRAREN AMAIERAKO DOKUMENTAZIOA

Kontratistak Zuzendaritza Fakultatiboari gauzatutako obraren dokumentazioa prestatzen lagunduko dio, nola bere kontura hala kontratatutako enpresen bidez.

16.- HONDAKINEN KUDEAKETA

Kontratistak lanen ondorioak minimizatzeko neurriak hartuko ditu. Neurri horiek Errezilgo Udalarekin eta obra-zuzendaritzarekin adostuko dira.

Kontratistak obra-hondakinen ekoizpenaren kontrola, jarraipena, sailkapena eta bilketa egin behar ditu, eta baimendutako kudeatzaileei entregatu behar dizkie. Kontratistaren kontura izango dira gastuak. Hondakinak maiz kenduko dira, garbiketa-maila egokia eta iraunkorra bermatzeko.

Lanak amaitutakoan, eta obra-harrera egin aurretik, kontratistak garbiketa sakona egingo du; hau da, zaborrak, hondakinak eta obretan erabilitako behin-behineko instalazioak kenduko ditu, eta lekua baldintza honetan utziko du, jabetzaren eta Zuzendaritza Fakultatiboaren onespenarekin. Halaber, obrengatik kalteak jasan dituzten urbanizazio-ondoko elementuak edo espaloiak aldatuko ditu, eta behin-behineko etxolak eraitsi edo kendu.

17.- MATERIALAK

Kontratistak obra-materialak kanpo-hornitzaileei erosi behar badizkie eta horien eskuragarritasuna eskaera-epeen eta ekoizpen-prozesu espezializatuen mende badago, nahikoa aurrerapenarekin egin beharko da erosketa, proiektuaren zehaztapenak betez eta zuzendaritza fakultatiboaren baimenarekin betiere, kontratistak lanei hasiera eman aurretik eskura izateko.

Kontratistak lanak gauzatzeko behar diren materialak eta gainerako gauzak bildu, garraiatu, deskargatu, gorde eta maneiatu egingo ditu, biltegiaren tamaina edozein dela ere.

Erabiliko diren materialak Zuzendaritza Fakultatiboak baimendu behar ditu. Materialak eta horien erabilera kontratuko agirien, jardunbide egokiaren ohiko arauen eta Zuzendaritza Fakultatiboaren aginduen mende daude. Kontratistak Zuzendaritza Fakultatiboari erabiliko diren materialen jatorriaren berri emango dio, nahikoa aurrerapenarekin, eta kalitateari nahiz kopuruari buruzko laginak eta datuak ahalbidetuko dizkio, entseguak egin edo beste aukera batzuk aztertzeko.

Kontratistak erregistratutako patente edo prozedura guztien betearazpena bermatuko du, eta horiei dagozkien arau-hausteengatik jasotako erreklamazioak bere gain hartuko ditu.

Material akastunak obren tokitik kenduko dira berehala, eta horien ordez baldintza onetan daudenak jarri, proiektuaren baldintza tekniko partikularren agirian xehatutakoaren arabera.

18.- KALITATE-KONTROLA: PROBAK ETA ENTSEGUAK

Obra-proiektuan jasotako Kalitate Kontrol Plana beteko da, indarreko legeriaren eskakizunak betez.

Izendatutako laborategiak obren kalitatea kontrolatzeko behar diren entseguak egingo ditu, bai indarreko legeriak bai Zuzendaritza Fakultatiboak eskatutakoa betez. Zuzendaritza Fakultatiboak eta enpresa kontratistak aldi berean ezagutuko dituzte entseguen emaitzak. Emaitza negatiboak aurrez ohartaraziko dira telefonoz, behar diren neurriak premiaz hartzeko.

Litekeena da kalitate-kontroleko laborategiaren funtzionamendu txarrak eta entseguen emaitza faltak lanak atzeratzea. Kasu horretan, kontratistak Zuzendaritza Fakultatiboari ohartaraziko dio, beharrezko neurriak hartzeko.

Oinarri honetan jasotakoak proiektu teknikoaren baldintza tekniko orokorren agiria indargabetuko du, aurreko paragrafoekin bateraezina edo kontraesankorra denean.

19.- OBRAREN KONTROLA

Kontratistak, Segurtasun eta Osasun Plana eta Azterlana betez, obrako langileen eta hirugarrenen segurtasuna bermatzeko beharrezko neurriak hartuko ditu: kartelak, hesiak, eskudelak, sareak, etab.

Kontratistak lantaldeko norbait edo pertsona-taldea izendatuko du hartutako segurtasun-neurriak kontrolatzeko.

Era berean, kontratistak obrak zaindu eta babestu egingo ditu, inolako kalte edo arriskurik izan ez dezaten obraren harrerara arte, eta horretarako behar diren neurriak jarri beharko ditu.

20.- BEHIN-BEHINEKO INSTALAZIOAK

Kontratistak hitzematen du lanak gauzatzeko behar diren instalazioak, biltegiak, baliabide osagarriak, itxierak, etab. jarriko dituela, Zuzendaritza Fakultatiboaren onespenarekin.

Kontratista arduratuko da obrak gauzatzeko behar den uraz, eta hark egingo ditu ura lortzeko beharrezko izapideak, kanalizazioak eta kanon-, hargune- eta kontsumo-ordainketak, indarreko araudiarekin adostasunean.

Kontratistaren kontura izango dira lana gauzatzeko beharrezko argindarra eta hari lotutako izapideak eta baimenak, lineak, transformazio-zentroak, barneko sarea eta kanon-, hargune- eta kontsumo-ordainketak. Indarreko Araudiak eta Ordenantzak betez egingo da barne-instalazioa. Kontratistaren tresna eta ekipo guztiek lur-hargunea eta legez galdagarriak diren prebentzio-neurriak edukiko dituzte.

Kontratistak, halaber, obrek iraun bitartean behin-behineko argiztapena instalatuko du, lan egin eta inguruan zirkulatu ahal izateko.

Kontratistak behar diren izapideak egingo ditu obraren segurtasunerako behin-behineko instalazioen (garabiak, zerbitzu higienikoak, hesiak, etab.) baimen ofizialak lortzeko. Instalazio horiek 15 egun balioduneko epean kendu beharko dira, Udalak edo Zuzendaritza Fakultatiboak eskaera egiten duenetik.

21.- OBRA-UNITATEAK AREAGOTZEA ETA GUTXITZEA

Eskaintza ekonomikoa kontratistak proposatutako prezioari egokituko zaio. Jabetzak zehaztuko ditu gauzatu daitezkeen obra-unitateen prezioak, baldin eta kontratatu ez badira, aldez aurretik Zuzendaritza Fakultatiboari proposatu eta gero. Horretarako, lanak kontratatzean merkatuko aleko prezioak hartuko dira aintzat, SPKLaren 242. artikuluan jasotakoa betez.

Baldin eta kontratistak obra-unitate berriak proposatutako prezioan gauzatzen ez baditu, jabetzak zuzenean bete edo kontrata ditzake, kontratuaren xede diren obren garapenerako beharrezkoa denean, eta, hala badagokio, kontratuaren prezioari gauzatu ez diren obra-unitateen edo atalen edo materialen zenbatekoa deskontatuko zaio. Partzialki egindako obra-unitateak proiektuaren aleko prezioen deskonposizioaren arabera ordainduko dira, dagokion unitatetik egin ez diren zatiak kenduta eta kontratistak eskainitako igoera edo jaitsiera aplikatuta.

Hala badagokio, jabetzak proposatutako aldaketen prezioak aurreko paragrafoan adierazitako moduan zehaztuko dira. Baldin eta kontratistak obra-unitate berriak proposatutako prezioan gauzatzeari uko egiten badio, jabetzak zuzenean bete edo kontrata ditzake edo, hala badagokio, aldaketa horiek egiteko beharrezko materialak erosi; horri dagokiola, kontratuaren prezioari gauzatu ez diren obra-unitateen edo materialen zenbatekoa deskontatuko zaio.

Eskaintza ekonomikoa ere aldatu egingo da, gauzatuko diren obra-unitateak gehiago edo gutxiago badira. Udalak proposatuko du hori, eta kontratistak kasuan kasuko kontratuaren prezio-igoera edo -jaitsiera onartu beharko du.

22.- OBRA-HARRERA ETA -KITAPENA.

SPKLaren 243. artikuluak, bat datorren legeriak eta baldintza teknikoen agiri honek arautuko dituzte obren behin-behineko eta behin betiko harrera eta kitapenak.

23.- AGIRIEN LEHENTASUN-ORDENA

Proiektu teknikoa (planoak, memoria, aurrekontua eta neurketak, baldintzen agiria, oinarrizko segurtasun-eta osasun-azterlana, hondakin-kudeaketaren azterlana eta kalitate-kontroleko plana barne) baldintza-agiri honen xede den kontratazioari aplikatuko zaio. Aldiz, aurreko agirietako xedapenek ez dute eraginik izango, baldintza- agiriak bereziki, agiri honekin eta esleipendunak sinatuko duen kontratuarekin bateraezina edo kontraesankorra bada. Proiektuko agiriak nagusituko dira gauzatu beharreko obra-partidei eta erabili beharreko materialen ezaugarriei eta kalitateei eta obra-unitateen egikaritze-sistemei dagokionez.

24.- BALDINTZAZKO KLAUSULA

Kontratu hau izapidetzeko ez da beharrezkoa hirugarrenekin konpromisoak hartzea, baina ezingo da formalizatu harik eta lanei hasiera emateko beharrezko baimenak lortu eta kontratazio-organoak ontzat eman arte.